

- [Política](#)
 - [Estado](#)
 - [Euskadi](#)
- [Internacional](#)
 - [Actualidad](#)
 - [Conflictos](#)
- [Economía](#)
 - [Estado](#)
 - [Euskadi](#)
 - [Internacional](#)
- [Entrevistas](#)
- [Opinión](#)
- [Comunicados](#)
- [Deportes](#)
- [Sociedad](#)



Sociedad ● ● ●

volver



Barrikoteak eta gaztainak emango ditu Sagardoetxea Museoak uzta berriaren etorrera ospatzeko

Sagastia aire librean dagoen gunea da, sagarraren kultura modu dinamiko eta pedagogikoan gozatzeko aukera eman duena.

30/11/2010

DONOSTIA/SAN SEBASTIAN - Astigarragan (Gipuzkoa) dagoen Sagardoetxea Museoak sagardo berriaren etorrera ospatu nahi du eta abenduaren 4tik 8ra sagardoaren uzta berridun barrikoteak eskainiko dizkie bisitariei gaztainekin lagunduta.

Museoko arduradunek azaldu dutenez, barrikoteak lehen uztaren dastaketan dauka jatorria. Senitartekoek barrikote bat erosten zuten eta afari bat antolatzen zuten sagardo berria dastatzeko. Usadio horrek bizirik jarraitu du gaur egunera arte, eta abenduko zubian esperientzia hau bizitzeko aukera eskaini nahi du Sagardoetxeak.

Sagardoetxea Museoak sagarra eta sagardoaren errealitatera gerturatzeko hiru gune eskeintzen ditu. Sagastia aire librean dagoen gunea da, sagarraren kultura modu dinamiko eta pedagogikoan gozatzeko aukera eman duena; sagastiaren alboan, museo-gunea dago eta baliabide eta teknologia aurreratuenak ditu sagarra eta sagardoaren historia, iragana, oraina eta

etorkizuna ezagutu ahal izateko; hirugarren gunea sagardoa txotxeko ohituran dastatzeari eta Sagardoetxeak hautaturiko produktuen dastaketari zuzendua dago: muztioa, likorea eta sagar dultzea.

Abenduko zubian zehar, Sagardoetxea Museoa egunero egongo da irekita, 11:00etatik 13:30ak arte goizez, eta 15:30etatik 19:00ak arte arratsaldez.

[Compartir](#)

Últimas noticias de Sociedad



[Sociedad](#)

El precio de la vivienda en Euskadi se sitúa en noviembre en 3.735 euros/m2...



[Sociedad](#)

Ia 11.000 ikus-entzule izan ditu Zinebi 52 jaialdiak



[Sociedad](#)

Más del 80 por ciento de las personas en riesgo de pobreza y exclusión soci...



[Sociedad](#)

El Museo Chillida Leku solicita un ERE temporal y acuerda su cierre a parti...

Pon a volar tus ideas

Publica, Comparte, Comenta, Vota En Spanair tu idea importa

Anuncios Google

Cursos en Guipuzcoa

Centro de Formación en Guipuzcoa: Oposiciones, Titulaciones, Cursos.

Anuncios Google